



**Diputatuen Kontseiluak, 2020ko urriaren 6ko bileran, ondorengo erabakia hartu du:**

"Europar desberdintasun maila txikiena duten pertsonen komunitatea izan nahi du Gipuzkoak". Gipuzkoako Foru Aldundia etorkizuneko ikuspegi horrekin ari da lanean legegintzaldi honetan, eragile eraldatzaile den aldetik berdintasunean oinarrituagoa den gizartearen eraikitze eta, ondorioz jendarte oparagoa eta kohesionatuagoa lortzeko. Etorkizunaren, lehiakortasunaren, berdintasunaren eta lankidetzaren balioetan oinarritutako ikuspegia du.

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eragingarriaren lorpena inolako zalantzarik gabe da aipatutako planteamendua erdiesteko funtsezko faktore bat, premisa saihetsezin bat. Hain zuzen ere bizitzaren esparru guztietan oraindik ere emakumeen mendekotasuna eta diskriminazioa bultzatzen duten jokabideak direlako, emakumeen eta gizonen egiturazko desberdintasuna azaltzen duten faktore garrantzitsuenetakoak direlako.

Genero Berdintasunaren Indizeak, 2020an lehen aldiz argitaratu baita Gipuzkoari begira egindako neurketekin –2017ko urteari dagozkiorarik– 72,5 puntutan kokatzen du Gipuzkoa, eta 100 da erabateko berdintasunari dagokion balioa. Zifra horrek Europako batez bestekotik gora jartzen du geure lurraldea. Hala eta guztiz ere, behar-beharrezkoa da berdintasunean aurreratuenak diren herrialdeen maila –Finlandia, 73,4; Frantzia, 74,6; Danimarka, 77,5; eta Suedia, 83,5– lortzeko helburuak jartzea.

Euskal Herri osoa bezala, berdintasunerako politikak sustatzeko lurralde aitzindaria izan da Gipuzkoa. Betiere gobernuen bultzada etengabeari eta handiari esker eta gipuzkoar herritarren konpromiso sozial gero eta handiagoari esker. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana Gipuzkoan 2020-2023 planak beste bultzada bat eman nahi dio konpromiso horri, beste urrats bat egin nahi du egiazko berdintasuna lortzeko bidean.

Hauexek dira finkatzen ditugun helburu eta konpromiso nagusiak, datozen hiru urteotan egikaritzen ahaleginduko garenak: Diputazioaren baitan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko duten egiturak, mekanismoak eta praktikak indartzea ahalbidetuko duen gobernantza eredua –gobernu ona– bultzatzea; Gipuzkoan emakumeen ahalduzko pertsonala, kolektiboa eta soziopolitiko bultzatzea; ekonomia eta gizarte antolakuntza berdintasunaren alde eraldatzea; eta gurea indarkeria matxistarik gabeko lurraldea izatea lortzea.

**El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 6 de octubre de 2020, ha adoptado el siguiente acuerdo:**


"Gipuzkoa quiere ser la comunidad de personas con menores niveles de desigualdad de Europa". La Diputación Foral de Gipuzkoa trabaja en la presente legislatura con esta visión de futuro, con la determinación de, como agente transformador, avanzar en la construcción de una sociedad más igualitaria y, por ende, más próspera y cohesionada. Una visión edificada sobre los valores de futuro, competitividad, igualdad y colaboración.

La consecución de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres se erige, sin lugar a dudas, en un factor central, en una premisa ineludible, para el logro de dicho planteamiento. Precisamente porque las actitudes que sustentan la subordinación y discriminación de las mujeres en todos los ámbitos de la vida siguen siendo uno de los principales factores que explican la desigualdad estructural de mujeres y hombres.

El Índice de Igualdad de Género, que por primera vez se ha publicado en 2020 con mediciones propias para Gipuzkoa –relativas a 2017– sitúa a Gipuzkoa en 72,5 puntos, siendo 100 el valor correspondiente a la igualdad total. Esta cifra coloca a nuestro territorio por encima de la media europea. A pesar de ello, resulta necesario ponernos como objetivo alcanzar a los países más avanzados en igualdad, tales como Finlandia (73,4), Francia (74,6), Dinamarca (77,5) y Suecia (83,5).

Gipuzkoa, al igual que el conjunto del País Vasco, ha sido un territorio pionero en el impulso de las políticas para la igualdad. Lo ha sido gracias al impulso continuado y decidido de diferentes gobiernos, así como al creciente compromiso social de la ciudadanía guipuzcoana. El III Plan Foral para la igualdad de Mujeres y Hombres en Gipuzkoa 2020-2023 pretender dotar a ese compromiso de un nuevo impulso, asegurar un eslabón más hacia la consecución de la igualdad real.

Impulsar un modelo de gobernabilidad –buen gobierno– que permita reforzar en el seno de la Diputación las estructuras, mecanismos y prácticas que promuevan la igualdad de mujeres y hombres, contribuir al empoderamiento personal, colectivo y sociopolítico de las mujeres en Gipuzkoa, transformar la economía y la organización social a favor de la igualdad, y conseguir que el nuestro sea un territorio libre de violencia machista son los principales objetivos –y compromisos– que establecemos y que buscaremos materializar en los próximos tres años.





Ustekabean harrapatu gaituen COVID-19aren pandemiak azkartu baizik ez ditu egin itxura batean munduan gertatzen ari ziren gizarte, ekoizpen eta ekonomia eraldaketa handiak. Azaleratu diren erronka handiek gure arreta erakarri dute, alegia, behar-beharrezkoa dela egoera honek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ez handitzea, eta ohartarazten dute guztiz egokia dela gure komunitatean gizarte eta ekonomia arrakalak handitzea eragotziko duten politika eta ekimen publikoak abiaraztea.

Testuinguru horretan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana Gipuzkoan 2020-2023 prestatzea bultzatu eta koordinatu du. Legegintzaldi honetan zehar Gipuzkoako emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru politika bideratzeko oinarriak finkatzen ditu plan honek. Era berean, lan, helburu eta ekintza ildoak jasotzen ditu Foru Aldundiak bere barne antolamenduan eta eginkizunean aurrera egin dezan baita berdintasunaren alorrean ere.

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, diputatu nagusiak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

#### ERABAKITZEN DU

Onartzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana Gipuzkoan 2020-2023, erabaki honekin batera eranskin gisa doana.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Erabaki horren aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, BI HILABETEKO EPEAN, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, HILABETEKO EPEAN, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berriazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2020ko urriaren 9a / San Sebastián, 9 de octubre de 2020  
Diputatu Nagusiaren Alorraren idazkaria / El secretario del Área del Diputado General

Sin.: / Fdo.: Juan José de Pedro Alonso



La inesperada llegada de la pandemia de COVID-19 no ha hecho sino acelerar las grandes transformaciones sociales, productivas y económicas en las que el mundo parecía estar adentrándose. Los grandes retos aflorados nos llaman la atención sobre la necesidad de que esta situación no intensifique las desigualdades entre mujeres y hombres y alertan sobre la pertinencia de activar políticas e iniciativas públicas que eviten el crecimiento de las brechas sociales y económicas en nuestra comunidad.

En este contexto, el Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres ha impulsado y coordinado la elaboración del III Plan Foral para la igualdad de Mujeres y Hombres en Gipuzkoa 2020-2023. Este plan establece las bases para el despliegue de la política foral para la igualdad de mujeres y hombres en Gipuzkoa durante la presente legislatura. Recoge, asimismo, líneas de trabajo, objetivos y acciones para que la Diputación Foral, como institución referente y arraigada en el territorio, avance también en materia de igualdad en su organización interna y en su cometido.

Por consiguiente, a propuesta del diputado general, el Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación,

#### ACUERDA

Aprobar el III Plan Foral para la igualdad de Mujeres y Hombres en Gipuzkoa 2020-2023, que se adjunta al presente acuerdo como anexo.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.